




Eraikuntzaren sektoreko jarduerak gora egin du

Eraikuntzaren ekoizpena
Urte bakoitzeko batez besteko balioa. Indizea




Iturria: Eustat.

2024an, EAEko eraikuntza sektoreko jarduera %2,3 handitu zen, 2023arekin alderatuta. Igoera hori ingeniarietza zibilean izandako bilakaera positiboak (%7,3) eragin zuen batez ere, eta, neurri txikiagoan, eraikinen atalak (%0,1) ere. Aitzitik, enpleguak %5,oko jaitsiera nabarmena izan zuen.

Industriaren prezioak % 1,9 igo ziren

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratutako datuen arabera, **Euskadiko IPRI indizea %1,9 igo zen urtarrilean, aurreko urteko hilabete beraren aldean.** Hala, adierazle horrek aurreko hileko urte arteko tasa positiboa berretsi du, osagai guztien goranzko bilakaeraren ondorioz.



Azalera handietako salmentak %0,5 jaitsi ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko urtarrila. Indizea




Iturria: Eustat.

Aurtengo urtarrilean, azalera handietako eta elikadura kateetako salmentak %0,5 jaitsi ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Jaitsiera hori elikagaien sektorean (-%0,4) eta gainerako produktuetan (-%0,6) kontzentratu zen. Hala ere, aurreko aldietan bezala, enplegua sortzen jarraitu zen (%1,5).

Estatuko KPIa %3,0an kokatu da otsailean

Estatuko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk aurreratutako adierazlearen arabera, **Estatuko KPIa %3,0koa izan zen otsailean, urtarrileko datua hamarren batean gaindituz.** Bilakaera hori batez ere elektrizitatearen prezioen igoeraren ondorio izan zen, 2024ko otsaileko jaitsieraren aldean. Aitzitik, azpiko inflazioa hiru hamarren jaitsi zen, %2,1eraino.